

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

4001

EBAZPENA, 2015eko irailaren 16koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, 2015. urterako euskal lankideentzako laguntzen deialdia egiten duena.

Ebazpen honen bidez, bete egiten dira, 2015. urterako, Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutan borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautzen duen maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuan jasota dauden aurreikuspenak (2005/06/03ko EHAA, 104. zk.), gaur egungo idazketa aintzat hartuta, dekretu hauen bidez eginiko aldaketen ostean: 2/2006 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa (2006-01-17ko EHAA, 11. zk.) eta 264/2006 Dekretua, abenduaren 26koa (2007-01-09ko EHAA, 6. zk.). Oro har, ebazpen honetan ez dira errepikatuko dekretu horren edukiak, zeina diru-laguntza hauen deialdira aurkeztu nahi duten erakundeek nahitaez kontsultatu behar baitute.

124/2005 Dekretuak arautu egiten ditu pobreziaren aurka lan egiten duten tokiko erakundeak eta entitateak sendotzeko xedearekin parte hartzen duten euskal lankideentzako laguntzak, ezarritako betekizunak betetzen dituzten Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeei edo bestelako erakundeei diru-laguntzak emanez.

Deialdia egiteko eskumenari dagokionez, eta kontuan izanik zer dioten, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak, eta bestetik, Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuak, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak egin behar du diru-laguntzen deialdi hau. Deialdiaren ebazpenean adierazi beharko dira deialdiaren xedea, zuzkiduraren zenbateko osoa eta laguntzen gehienezko kopurua, bai eta eskabideak aurkezteko lekua, epea eta eskabide-eredua ere.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak du laguntza horiek eta emango diren ebazpenak kudeatzeko eskumena, hala xedatuta baitago, batetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikuluan, eta, bestetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikuluan.

Azkenik, adierazi behar da deialdi honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen oniritzia jaso zuela, 2015eko maiatzaren 6an egindako bilkuran.

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Xedea.

Ebazpen honen xedea da euskal lankideentzako laguntzen deialdia egitea 2015. urterako.

2. artikulua.— Diru-zuzkidura.

Euskal lankideentzako laguntzetarako diru-zuzkiduraren zenbateko osoa 200.000 eurokoa izango da.

3. artikulua.— Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntzaren zenbatekoa urteko 18.000 euro bitartekoa izango da, hautagai bakoitzeko, gutxienez urtebetez, eta gehienez bi urtez.

4. artikulua.— Eskabideak aurkeztea.

1.— Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.— Laguntza-eskabidea aurrez aurre aurkez daiteke Herritarrei Laguntzeko Bulegoan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bulegoetan, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean, eskabide normalizatu baten bidez, haren atal guztiak behar bezala beteta, ebazpen honen I. eta II. eranskinetan jasotako ereduen arabera.

3.— Eskabideak aurkez daitezke, baita ere, honako webgune hauen bitartez: www.elankidetza.euskadi.net Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webgunea, eta www.euskadi.net Eusko Jaurlaritzaren webgunea.

4.— Eskabideak, I. eta II. eranskinetan jasotako ereduen arabera beteta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziara helarazi beharko dira:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

Nafarroa kalea 2

01007 Vitoria-Gasteiz

5. artikulua.— Laguntzak kudeatzeko organoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari dagokio diru-laguntza lerro honen kudeaketa-lanak egitea. Hartarako, laguntza-eskabideen gaineko balorazioa eta azterketa teknikoa egingo ditu Koordinazio Teknikorako Zerbitzuak, eta, bestalde, proposamena helaraziko dio hurrengo artikulua aipatzen duen Balorazio Batzordeari. Eta hartarako batzarturik, batzorde horrek proposamena egingo dio organo eskudunari, hain justu ere laguntzak esleitzeari buruzko proposamena.

6. artikulua.— Balorazio Batzordea.

Honako pertsona hauek osatzen dute Balorazio Batzordea, aurreko artikuluan aipatzen dena:

— Lehendakaria: Ainara Arrieta Archilla andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinazio Teknikoko arduraduna.

— Kidea: Nicolás Basarrate Hormaechea jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna.

— Kidea: Amaia Etxabarri Saiz andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Administrazio Orokorreko teknikaria.

— Idazkaria: Ana Isabel Rojo González andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako aholkulari juridikoa.

7. artikulua.— Esleitzeko eskumena duen organoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria da iragarritako laguntzak esleitzeko eskumena duen organoa.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ebazpen honetan berariaz xedatuta ez dagoen ororako, honako hiru hauetan jasotako xedapenak aplikatuko dira: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua; eta Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutari borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautzen duen maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretua.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 16a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,
MARÍA ÁNGELES ELORZA ZUBIRÍA.



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

Imprimir



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

I. ERANSKINA EUSKAL LANKIDEENTZAKO LAGUNTZEN ESKAERA

(*) nahitaezko eremuak

Prozedura kudeatzen duen administrazio-organoa

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

Euskadiko erakunde eskatzailearen edo Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari-tza iraunkorraren datuak *

Izena (estatutuen araberrako izen osoa adierazi):

IKF:

Helbidea:

P.K.:

Herria:

Lurraldea:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa (e-mail):

Webgunea Helbidea:

Jakin-arazpen eta komunikazio-erako kanal *

☐ Posta bidezkoa

Helbidea *

Zk. ____ Sol. ____ Letra ____

PK *

Udal-erria *

Probintzia *

Herrialdea * ESPAÑA



☐ Elektronikoa

Jakin-arazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza *

☐ Euskara

☐ Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak *

Helbide elektroniko edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektroniko edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanaz gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Proiektuaren datuak

Proiektuaren izenburua (gehienez 96 karaktere):

Lankidetzat gauzatuko den herrialdea(k):

Lankidearen izen abizenak:

Lankidearen N.A.N.a::

Eskabideari buruz GLEAren harremanetarako erreferentziazko pertsonaren datuak

Izen-abizenak:

Lanpostua eta kargua: _____

Telefonoa: _____

Helbide elektronikoa (e-mail): _____

Tokiko erakundearen datuakIzena (*estatutuen arabera izen osoa adierazi*):

Helbidea:

 P.K.:

Herria:

 Lurraldea:

 Herrialdea:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa (e-mail):

Webgunearen helbidea:

Proiektuaren iraupenaHasteko aurreikusitako data:

Bukatzeko aurreikusitako data:

Osorik burutzeko epea:

 (*Hilabeteak*)**Proiektuaren finantzaketa**Kostua guztira:

 (*euro*)Eskatutako diru-laguntza:

 (*euro*)**Helburu berarekin beste ekarpen batzuk-emandakoak / eskuragarriak edo eskatutakoak (zehaztu)::**

	Emandakoa / eskuragarria	Eskatutakoa
Euskal erakunde eskatzailea:		
Tokiko erakundea:		
Beste batzuk (<i>lerro bat finantziario iturri bakoitzeko</i>):		

+ Gehitu lerro berria

- ☐ Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak ziurtatzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren Herri Administrazioarenak ez diren beste baliabide batzuez kofinantzatuko duela gutxienez proiektuaren % 25.

Proiektuaren kofinantziakzioa _____ eurotakoa izango da, aurrekontu osoaren % _____ dena, eskabide honekin batera aurkeztu den II. Eranskinaren 7. en atalean adierazten den bezala.

Erakunde eskatzaileari dagozkion erantzukizunpeko adierazpenak

- ☐ Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak, ez dute diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galaraziko liekeen administrazio- edo zigor-zehapenik jaso, sexu-arrazoiengatik diskriminazioan erortzeagatik zehapenak barne, eta horretarako ezgaituko lituzkeen lege-debekurik ere ez dute bete behar.

- ☐ Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak, eskaera aurkezteko epea amaitzen denean, lehenago diruz lagundutako beste proiektu batzuen azken txostenak eta justifikazio guztiak igortzean, ez dauka hiru hilabete baino gehiagoko justifikatu gabeko atzerapenik.

- ☐ Eskabide honetako datuak eta erantsitako agiriak egiazkoak dira.

- ☐ Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak eta, hala badagokio, partzuergoan bildutako erakundeek, indarreko araudian laguntza horien onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituzte, hori egiaztatzen duten agirien jabe dira eta diru-laguntza baliatzen duten bitartean betekizun horiek betetzen jarraitzeko konpromisoa hartu dute.

- ☐ Euskal erakunde eskatzaileak bermatzen du lankidea, bere jardura betetzen duen bitartean, proiektua egiten ari den lekuan, gutxienez urtebetez eta gehienez ere bi urtez egongo dela.

- ☐ Lankidearen aseguru-konpromisoaren adierazpena, Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak kontratatutako aseguru orokor kolektiboari atxikiz edo poliza bat sinatuz. Poliza horrek, nolahi ere, Lankidearen Estatutua ezartzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretuaren 10.1.e artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

- ☐ Diru-laguntza esleitzeko eskatutako eta aintzat hartutako eskakizunei eragiten dien edozein aldaketaren berri Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari jakinarazteko konpromisoa hartzen du erakunde eskatzaileak.

Aurretik entregatutako dokumentuak

(1) Dokumentu hauek kontsultatzeko baimena ematen dut:

(1) Beherago dagoen "Eskatutako dokumentuak" zerrendan (*) batez markatutako agiriak soilik, aurkezten den lehen aldia EZ BADA eta EZ BADAGO aurreko urteekiko aldaketarik, hau da: ahalordea, estatutuak, erregistroan inskripzioa eta IFK

Dokumentuaren izena	Noiz entregatu zen	Zein erakundetan entregatu zen

+ Dokumentu berria gehitu

E (Eskakizuna)	Eskatutako dokumentuak	Igotako dokumentua
	Txostena - II. eranskina (Formulario teknikoa eta Currikuluma Vitae, ahal bada euskarri digitalean, bertan adierazitako argibideak jarraituta osatuz. (E)	
	(*) Txostena (Ahalordetze-eskritura) - EAEn erakunde eskatzailearen ordezkari den pertsonaren ahalordearen originala edo kopia kautotua/konpultsatua. (E)	
	(*) Txostena (erregistroan inskripzioa) - Dagokion erregistroaren inskripzioaren originala edo kopia kautotua/konpultsatua. (GGKEentzat - 3.1.a. artikulua 124/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa). EAEn dagokion erregistroaren inskripzioaren originala edo kopia kautotua/konpultsatua. (Beste erakunde batzuentzat - 3.1.a. artikulua 124/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa). (E)	
	(*) Txostena (Estatutuak) - Erakunde eskatzailearen estatutuen originala edo kopia kautotua/konpultsatua. (E)	
	(*) Identifikazio fiskaleko kodea (IFK) -Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakiaren (IFZ) txartelaren originala edo fotokopia kautotua/konpultsatua (E)	
	Txostena - Erakunde eskatzailearen eta lankidegaia txertatuko den tokiko gizarte-erakundearen arteko lotura egiaztatzen duen agiria. (E)	
	Ziurtagiria - Tokiko erakundearen ziurtagiria, lankidea lankidetzat nahi duela egiaztatzen duena. (E)	
	Lan-Kontratua - Lan-aurrekontratuaren edo lan-kontratuaren kopia soila, ekintzak xede-herrialdean izango dituen ezaugarri bereziak zehazten dituen prestazioa egiteko akordio osagarriarekin batera. (E)	
	Mapa - Proiektuaren kokapena zehazten duen maparen kopia soila, ahal bada euskarri digitalean. (E)	
	Erroladaren ziurtagiria - Erroldaren ziurtagiria, lankide boluntarioa EAEko edozein udalerritan 2015eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik bizi dela egiaztatzeko. (E)	
	Lankidearen NAN - Lankidearen NANaren fotokopia. (E)	
	Unibertsitate-titulua - Lankidearen curriculum vitaen esandako unibertsitate-titulua egiaztatzeko dokumentazioa. (E)	
	Heziketa (ikasketak) - Lankidearen curriculum vitaen esandako ikasketak, ikastaroak etab. egiaztatzeko dokumentazioa. (E)	
	Lanak - Lankidearen curriculum vitaen esandako lanak, praktikak, etab. egiaztatzeko dokumentazioa. (E)	
	Heziketa (Hizkuntzak) - Lankidearen curriculum vitaen esandako hizkuntzak egiaztatzeko dokumentazioa. (E)	
	Zinpeko aitorpena - Lankidearen zinpeko aitorpena, deialdiaren oinarriak betetzeko konpromisoa bere gain hartuz. (E)	
	Proforma faktura - Proforma fakturen kopia soila. (E)	
	Txostena (banakatutako aurrekontua) - Partiden eta baterako finantzatzaileen arabera banakatutako aurrekontuaren kopia soila, finkatutako formatuarekin bat etorritik.	

Baimenak

Deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen diot dagokion administrazioan honako datu hauek egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko, baliabide elektronikoen bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez:

☐ Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen datuak (GSDO)

☐ Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen datuak (Foru-aldundiak + AEAT)

Laguntzak behar bezala esleitzeko, adierazitako datuak erkatu eta beharrezko direnak egiaztatu ahal izango ditu Administrazio publikoak.

_____ (e)n, _____ (e)an
(Tokia) (Data)

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

II. ERANSKINA**FORMULARIO TEKNIKO ETA HAUTAGAIEN CURRICULUM VITAE****EUSKAL LANKIDEENTZAKO LAGUNTZAK****I- HAUTAGAIARI BURUZKO INFORMAZIOA.**

1.– Lankidearen jardura txertatzen den prozesuaren deskribapen xehatua (25-50 lerrotan deskribatu tokiko erakundea edo entitatea, eta berau indartzeko dauden estrategiak zehaztu, bai eta borondatezko lankidearen jardura non kokatu behar den ere).

2.– Lankideak proiektuan dituen egitekoen deskribapen xehatua (25-50 lerrotan adierazi lankideak dituen egitekoen buruzko daturik garrantzitsuenak).

3.– Jardueren kronograma (2. atalean aipatutako egitekoak jardueren zutabeen daude zerrendatuta. Ondoko zutabeetan «X» batez adieraziko da jardura bukatzeko aurreikusten den hiru hilabetea).

Jarduerak	Lehenengo urtea				Bigarren urtea			
	1.º	2.º	3.º	4.º	1.º	2.º	3.º	4.º

(Gehitu behar beste jardura)

4.– Kokapen xehatua.

5.– Aurreikusitako Emaitzak (10-20 lerrotan deskribatu lankidearen bitartez eta lagundu egin nahi den tokiko antolakunde/ erakundearen bitartez lortu nahi diren emaitzak).

5.1.– Aurreikusitako emaitzak.

5.2.– Emaitzak egiaztatzeko adierazleak.

5.3.– Adierazleak egiaztatzeko bideak.

6.– Tokiko erakundeak behar duen lankidearen ezaugarriak.

--

7.- PROIEKTUAREN AURREKONTUA ETA FINANTZAZIOA.

Partidak	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia	Euskal erakunde eskatzailea	Tokiko erakundea	Beste ekarpen batzuk	Guztira
Lankidearen ordainsaria					
Gizarte Segurantzako gastuak					
Aseguru-gastuak					
Garraioa					
Guztira, oro har (eurotan)					
Guztizko kostuen gaineko portzentajea					

II.- LANKIDEAREN CURRICULUM VITAE

I– Informazio orokorra.

Izen-abizenak:

NAN: Jaioteguna:

Helbidea: Herria:

Probintzia: PK:

Telefonoa: Faxe:

Posta elektronikoa:

2.– Argibide akademikoak:

2.1.– Titulazio akademikoa:

Zertan lizentziatua? (zehaztu):

Zentroa:

Ikasketak amaitu zitueneko data:

Ikasketen ziurtagiriko kalifikazioa:

2.2.– Graduatu ondoren egindako ikastaroak:

Titulua:

Zentroa:

Iraupena: Lortutako kalifikazioa:

Titulua:

Zentroa:

Iraupena: Lortutako kalifikazioa:

2.3.– Bestelako ikasketa edo ikastaroak:

Titulua:

Zentroa:

Iraupena: Lortutako kalifikazioa:

Titulua:

Zentroa:

Iraupena: Lortutako kalifikazioa:

3.– Hizkuntzak:

Lankideak ekintza burutuko duen eskualdean erabiltzen den/diren hizkuntza/k:

Lankideak egiaztatutako hizkuntzak:

Hizkuntza	Maila	Egiaztatzen duen dokumentua
.....		
.....		
.....		
.....		

4.- Ibilbide profesionala:

4.1.– Jasotako bekak eta laguntzak.

Erakundea	Bekaren izena	Hasiera/bukaera data	Iraupena
.....			
.....			
.....			
.....			
.....			
.....			

4.2.– Lan esperientzia:

Erakundea	Postua	Hasiera/bukaera data	Iraupena
.....			
.....			
.....			
.....			
.....			
.....			

5.– Egindako lanak eta argitalpenak:

Titulua:

Noiz argitaratua: Data:

Titulua:

Noiz argitaratua: Data:

Titulua:

Noiz argitaratua: Data:

6.– Beste datu interesgarri batzuk: